

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

15/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2. Epaitegia 30683393, 16067486, 15398901 eta 72455856 nortasun-agirien titularrek aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —15/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari da, “Arkitekto eta arkitekto teknikoaren lanpostuak (A1 eta A2 taldeak) sustapen eta LEP bidez betetzeko deialdiaren eskaintza handitzeko” erabakiaren kontra. Horrenbestez, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bederatzi eguneko epea jarri da, beren interesetarako komenigarritzat jotzen dutenek bertara ager daitezen, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 24an

Udal legelaria

AMAYA BEATRIZ ALFONSO ACEBO